

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 8:30 horas del día 2 de noviembre de 2021, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, D^a. Ana Azanza Burusco y D. Mikel Gaztelu Alonso, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure. Excusa su asistencia D^a Miren Oyarbide Lapazaran.

1.- SOLICITUD AYUDAS PARA INVERSIONES A PROYECTOS SINGULARES LOCALES DE ENERGÍA LIMPIA EN MUNICIPIOS DE RETO DEMOGRÁFICO (PROGRAMA DUS 5000), EN EL MARCO DEL PROGRAMA DE REGENERACIÓN Y RETO DEMOGRÁFICO DEL PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa de la publicación de la convocatoria de ayudas para inversiones a proyectos singulares locales de energía limpia para municipios de menos de 5.000 habitantes promovidas por el Ministerio de Industria , proponiendo solicitar dichas ayudas con el fin de ejecutar la segunda parte de renovación de alumbrado público.

Estando la corporación conforme se acuerda por unanimidad lo siguiente:

1. Participar y aceptar el procedimiento regulado por el Real Decreto (RD 692/2021), por el que se regula la concesión directa de ayudas para inversiones a proyectos singulares locales de energía limpia en municipios de reto demográfico (PROGRAMA DUS 5000), en el marco del Programa de Regeneración y Reto Demográfico del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
2. Aprobar las actuaciones que componen el Proyecto subvencionable y la dotación presupuestaria para llevarla a cabo, el cual asciende a 72.010,73 € más IVA, el compromiso para dotar presupuestariamente el proyecto así como el compromiso para financiar la totalidad del proyecto con carácter previo al cobro de la ayuda.
3. Aprobar la memoria descriptiva de las actuaciones a acometer RENOVACIÓN INSTALACIÓN ALUMBRADO PÚBLICO EN AURITZ/BURGUETE, realizada por el Técnico NASEI Ingeniería S.L.

2.- SOLICITUD VECINAL PARA QUE EL AYUNTAMIENTO INSTE A LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS SOCIALES AUÑAMENDI Y A LA CONSEJERIA DE BIENESTAR SOCIAL DEL GOBIERNO DE NAVARRA A LA INSTALACIÓN DE UN CENTRO DE DIA EN AURITZ/BURGUETE.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que el pasado 25 de octubre tuvo entrada en el registro una solicitud firmada por noventa y nueve personas solicitando que teniendo en cuenta que el próximo curso escolar el alumnado que cursa sus estudios en la escuela de Burguete va a trasladarse a la concentración de Garralda y los locales van a quedar vacíos, se ofrezca los mismos tanto a la mancomunidad de Servicios Sociales Auñamendi como a la consejería de Bienestar Social del Gobierno de Navarra para destinarlos a centro de día que de servicio a zona básica de Auritz/Burguete. Informa que en este tema han trabajado algo el Ayuntamiento de Garralda ofreciendo la casa de la Fundación Antonio Aióstegui y los ayuntamientos propietarios de la casa del Médico de

Aribe presentando cada ubicación sus ventajas y desventajas. A su parecer la propuesta de Auritz/Burguete es otra más que deberán valorar los organismos competentes pero que como ventajas tiene la de ser céntrica y contar con el servicio social de base y el centro de salud comarcal en la localidad.

El concejal Sr. Juandeaburre informa que en la Mancomunidad Auñamendi todavía no hay presentada ninguna propuesta y que además se debería trasladar el acuerdo a D. Javier Goicoa Juango ya que es delegado del Consejo del Mayor.

El concejal Sr. Gaztelu pregunta si los padres ya tienen tomada la decisión de llevar el alumnado a Garralda, respondiéndole el alcalde Sr. Irigaray que no se ha recibido comunicación alguna de ello pero que entre los firmantes del escrito hay padres de niños en edad escolar.

Priorizando todos los miembros de la Corporación la escuela, deciden preguntar a los padres si el traslado al colegio de Garralda es definitivo y si es así la Corporación acuerda por unanimidad:

Dado que el colegio público de Auritz/Burguete quedará cerrado el próximo curso, el ayuntamiento la de Auritz/Burguete acuerda ofrecer los locales del mismo tanto a la mancomunidad de Servicios Sociales Auñamendi como a la consejería de Bienestar Social del Gobierno de Navarra para destinarlos a centro de día que de servicio a zona básica de Auritz/Burguete.

Dar traslado del presente acuerdo, a la mancomunidad de Servicios Sociales Auñamendi, a la consejería de Bienestar Social del Gobierno de Navarra y a D. Javier Goicoa Juango.

3.- APROBACION MODIFICACION PRESUPUESTARIA AYUDAS TRANSFRONTERIZAS-CULTURALES

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa de las Subvenciones a entidades locales para el impulso de actividades de cooperación transfronteriza en el ámbito cultural 2021y de la concesión a Auritz/Burguete de 11.000 euros. Informa a su vez que las actividades cuyo proyecto se ejecuta y desarrolla con la colaboración de “Nabarralde”, consisten en charlas, exposiciones y relaciones entre ambos estado, España y Francia. El mencionado proyecto no se había contemplado en los presupuestos del año 2021 al tratarse de una convocatoria no prevista, por lo que se requiere de una modificación del presupuesto para incluir una nueva partida tanto en ingresos como en gastos.

A la vista de lo cual, la corporación acuerda por unanimidad aprobar la siguiente modificación catastral:

EXPEDIENTE DE HABILITACIÓN DE TRANSFERENCIA CREDITO DEL PRESUPUESTO GENERAL ÚNICO PARA EL EJERCICIO DE 2021, CUYO RESUMEN ES EL SIGUIENTE:

MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---------------------|---------------------------------------|------------------|
| 1 3340 22740 | ACTIVIDADES CULTURALES PROPIAS | 12.900,00 |

| | |
|-----------------------------|------------------|
| TOTAL MODIFICACIONES | 12.900,00 |
|-----------------------------|------------------|

FUENTES DE FINANCIACIÓN

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|----------------|---|------------------|
| 4508009 | SUBV. PROYECTO TRANSFRONTERIZO | 11.000,00 |
| | APORTACION NABARRALDE | 1.900,00 |

| | |
|--------------------------------------|------------------|
| TOTAL FUENTES DE FINANCIACIÓN | 12.900,00 |
|--------------------------------------|------------------|

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 9:30 horas. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2021eko azaroaren 2an, 8:30ean Udala Bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Ana Azanza Burusco eta Mikel Gaztelu Alonso zinegotziak; bilkura buru alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Miren Oyarbide Lapazaran zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

1.- ERRONKA DEMOGRAFIKOKO UDALERRIETAN ENERGIA GARBIKO TOKIKO PROIEKTU BEREZIETARAKO INBERTSIOETARAKO LAGUNTZAK ESKATZEA (DUS 5000 PROGRAMA), BERRESKURAPEN-, ERALDAKETA- ETA ERRESILIENTZIA-PLANAREN BIZIBERRITZE-PROGRAMAREN ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN ESPARRUAN

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Industria Ministerioak sustatutako 5.000 biztanletik beherako udalerrietarako energia garbiko tokiko proiektu berezietarako inbertsioetarako laguntzen deialdia argitaratu dela. Laguntza horiek eskatzea proposatu du, argiteria publikoa berritzeko bigarren zatia gauzatzeko.

Udalbatza ados egonik, aho batez erabaki da:

1. Erronka demografikoa duten udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu berezietarako inbertsioetarako zuzeneko laguntzak ematea arautzen duen 692/2021 Errege Dekretuak (DOS 5000 PROGRAMA) ezarritako prozeduran parte hartzea eta hura onartzea, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Berronertze eta Erronka Demografikoko Programaren esparruan.
2. Diruz lagundu daitekeen proiektua osatzen duten jarduerak eta proiektua gauzatzeko aurrekontu-zuzkidura onartzea (72.010,73 €gehi BEZa), bai eta proiektua aurrekontuz hornitzeko eta proiektu osoa finantzatzeko konpromisoa ere, laguntza kobratu aurretik.
3. AURITZEN ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEA izeneko memoria deskribatzailea onartzea. Memoria hori NASEI Ingenieria S.L.-k egin du.

2.- UDALAK AUÑAMENDI GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI ETA NAFARROAKO GOBERNUKO GIZARTE ONGIZATEKO KONTSEILARITZARI AURITZEN EGUNEKO ZENTRO BAT JARTZEKO ESKATZEKO HERRITARREN ESKAERA.

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du joan den urriaren 25ean laurogeita hemeretzi pertsonak sinatutako eskaera bat sartu zela erregistroan. Haren bidez eskatzen zaio Udalari, kontuan hartuta datorren ikasturtean Aurizko eskolan ikasten ari diren ikasleak Garraldako kontzentziora joango direla eta lokalak hutsik geratuko direla, lokal horiek Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari eta Nafarroako Gizarte Ongizateko Departamentuari eskaintzea, Aurizko Oinarrizko Osasun Eskualdeko eguneko zentroa egiteko. Jakinarazi du gaia Garraldako Udalak landu duela eta Antonio Arostegi Fundazioaren etxea eskaini duela eta Aribeko mediku-etxeko udal jabeek ere etxe hori eskaini dutela, eta bakoitzak bere abantailak eta desabantailak dituela. Bere iduriz Aurizko proposamena izango litzateke eskumena duten erakundeek baloratu beharreko beste bat, eta bere abantailak zentrikoa izatea eta herrian oinarrizko gizarte zerbitzua eta osasun etxea ere badaudela.

Juandeaburre zinegotziak jakinarazi du oraindik ez dela proposamenik aurkeztu Auñamendi Mankomunitatean eta hartuko den erabakia Javier Goicoa Juangori jakinarazi behar zaiola, Adinekoen Kontseiluko delegatua baita.

Gaztelu zinegotziak galdetu du gurasoek erabakita duten ikasleak Garraldara eramatea eta Irigaray alkateak erantzun dio ez duela horren berri ematen duen jakinarazpenik jaso baina idatzi sinatu dutenen artean badaudela eskolan seme-alabak dituzten gurasoak.

Udalkide guztiek eskolari lehentasuna emanez, gurasoei galdetuko diete ikasleak Garraldara joatea behin betiko erabakia den eta, horrela balitz, udalbatzak honakoa erabaki du aho batez:

Aurizko ikastetxe publikoa datorren ikasturtean itxiko denez, Aurizko Udalak lokal horiek Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari eta Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizateko Kontseilaritzari eskaintzea erabaki du, Aurizko oinarrizko eskualdeari zerbitzua emango dion eguneko zentro gisa erabiltzeko.

Erabaki honen berri Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari, Nafarroako Gobernuko Ongizate Kontseilaritzari eta Javier Goicoa Juangori ematea.

3.- AURREKONTUKO ALDAKETA ONARTZEA, MUGAZ GAINDIKO KULTURA DIRU-LAGUNTZAK

Irigaray alkate jaunak hitza hartu du eta 2021erako mugaz gaindiko lankidetzajarduerak bultzatzeko toki-erakundeei emandako diru-laguntzen berri eman du eta Aurizko Udalari 11.000 euro eman zaizkiola. Era berean, jakinarazi du Nabarralderen lankidetzarekin gauzatzen eta garatzen diren proiektuak bi estatuen, Espainiaren eta Frantziaren, arteko hitzaldiak, erakusketak eta harremanak direla. Esandako proiektua ez zegoen sartua 2021eko aurrekontuetan deialdia ez baitzegoen aurreikusita, eta, hortaz, aurrekontuaren aldaketa egin behar da diru-partida berria sartzeko diru-sarreraren eta gastuen ataletan.

Horiek horrela, udalbatzak erabaki du aho batez honako aurrekontu aldaketa onartzea:

2020KO AURREKONTU OROKOR BAKARRAREN KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO TXOSTENA. HONA HEMEN LABURPENA:

AURREKONTUKO ALDAKETAK

| PARTIDA | IZENA | ZENBATEKOA |
|--------------|------------------|------------|
| 1 3340 22740 | KULTUR JARDUERAK | 12.900,00 |

| | | |
|--------------------------|--|-----------|
| <i>ALDAKETAK OROTARA</i> | | 12.900,00 |
|--------------------------|--|-----------|

FINANTZAKETA-ITURRIAK

| PARTIDA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---------|---|------------|
| 4508009 | MUGAZ GAINDIKO PROIEKTURAKO DIRU-LAGUNTZA | 11.000,00 |
| | NABARRALDEREN EKARPENA | 1.900,00 |

| | | |
|--------------------------------------|--|-----------|
| <i>FINANTZAKETA-ITURRIAK OROTARA</i> | | 12.900,00 |
|--------------------------------------|--|-----------|

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 9:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.